



Arrainen  
freskotasuna  
bermatu eta  
arreta berezia  
bezeroei

Basoartek  
konfiantza  
eskaintzen du • VI

Eguzki  
energia eta  
domotika  
eskualdean

Ekidomen  
instalazioak  
etorkizunera begira  
daude • II

Kautxo Tiuna,  
merkatu  
berriei  
zabaltzen

Gizaburuagako  
enpresa aldaketa  
prozesuan dago • VII

# Etorkizunerako bideak urratzen arrantza arloan

Portu bakoitzaren potentzialitatea kontutan izan behar da • IV-V



“Enpresei  
erantzuteko  
aplikazioak  
garatzen ditugu”

Maite Bengoa, Lea-Artibai Ikastetxeko  
Komunikazio arduradunari elkarrizketa • VII



 aurkibidea

Editoriala • II

Enpresak sortzen • II

Iritziak • III

Sakonean • IV-V

Enpresak ezagutzen • VI

Lea-Artibai Ikastetxea • VII

Azaro Zerbitzuak • VIII

editoriala

# Arrantza sektorea: orain arteko oinarri, etorkizuneko erronka

**A**zaro Fundazioaren eginkizuna enpresa berrien sorreran lagundu eta sortuta dauden enpresak lehiakorragoak izan daitezten lan egitea delarik, hainbat alor eta sektore jorratzen ditu. Hori horrela, HAZIren zenbaki honetako gai nagusia izango den arrantza sektorean ere aktiboki lan egiten du, sektore honetako enpresei bere zerbitzuak eskainiz.

Lea- Artibai eskualdearen historian, arrantza sektorea beti izan da eragile ekonomiko garrantzitsua. Eskualdearen indargune bat aipatzekotan, sektore hori izan da zeresan handia

izan duena, eta oraindik ere duena.

70. hamarkadaz geroztik, ordea, arrantza sektoreak aldaketa handia jasan du. Europako legeen aldaketak, hazkunde jasangarriaren garapenak eta espezi-zen urritasunak ondorio garbiak izan ditu, eta horrek sektorearen gainbehera ekarri du. Bestalde, sektore hau oso esanguratsua da lanpostu berrien sorreran. Hau da, lehen sektoreko lanpostu batek beste lau/bost lanposturen sorrera dakar. Hortik sektoreak duen berebiziko garrantzia.

Hala izaten jarraitzea nahi baldin bada, arrantza sektorea-

ren aldeko apustu gogorra egitea nahitaezkoa da. Zentzu horretan, oso garrantzitsua litzateke orain arte garatu den estruktura ekonomikoa aztertu, indargune eta ahuleziak identifikatu eta berrikuntzan oinarritutako plana definitzea, etorkizunean arrakasta lortu ahal izateko. Horretarako, ezinbestekoa da beste herrialdeek emandako pausoak ezagutzea eta etorkizuneko joerak nondik nora doazen jakitea.

Horretan dabilta eskualdeko hainbat eragile: beste herrialdeetan arrantza sektorea indartu eta berritzeko aurrera eramandako ekintzak aztertzen ari dira

arrantza sektorearen egoera egokitzeko lehenengo pausoak ematen hasteko.

Horretaz gain, definitu da Euskal Autonomi Erkidegoko Arrantzarako Plan Estrategikoa (2007-2013). Plan horren baitan, hainbat helburu eta ekintza zehazten dira. Gai hori da, hain zuzen ere, zenbaki honek *Sakonean* atalean landuko duena.

*Eskualdeko enpresak ezagutzen* atalean, Lea-Artibai eskualdean kokaturik dauden eta arrantzarekin oso lotura estua duten enpresei buruzko azken informazioa biltzen duten artikulak irakur daitezke. Bestalde, *Kooperatiben bidetik* atale-

an, alde batetik, Eskualdeko Kooperatiben Mahaiak azken hiru urte hauetan babestutako kooperatiba berrien eta antolatutako ekintzen berri emango da. Beste alde batetik, egitasmo hori aurrera eramateko diruz laguntzen duen Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendari Alfredo Ispizuari egin zaion elkarrizketa irakur daiteke.

Seigarren zenbaki hau denontzako interesgarria izango delakoan aritu gara lanean, eta horrela jarraituko dugu; aurren, zenbaki bat gehiago kaleratuko dugu. Aurren lau bider izango gara zuen artean!

## enpresak sortzen

### Eguzki energia eta domotika eskualdera datoz Ekidom enpresaren eskutik

Etxebizitzetan egiten dituzten instalazioak etorkizunera begira daude; besteak beste, lur-irradiatzailea jartzen dute

**E**guzki energia eta domotika ez dira hain ezagunak inguruotan. Bada, besteak beste horiekin beharra egiten duen Ekidom enpresa laster dator Markina-Xemeingo Esperanza Haztegia. Esperientziadun enpresa da, orain arte Durangaldean egin izan du lan, baina hazteko gogoagaz dator Lea-Artibaira.

Matienako lokalean instalazio domotikoa eta eguzki energiaren erakusketa dute jarrita. Horregaz bezeroengana hurbiltzea, jendeak ezer erosi aurretik instalazioak ikustea, ukitzea... lortu nahi dute. Aurkezpenak egiten dituzte horretarako. Eta behin informazioa emanda, bezeroak erabaki behar du zer nahi duen. Gero, sistemaren bat instalatzea nahi badu, Ekidom arduratuko da behar hori egiteaz. Etxean instalazio domotikoa egitea erabaki dezake bezeroak. Etxebizitza automatizatzeako sistemak instalatzea da hori, besteak beste, honako arloet-

tan: energia, segurtasuna, ongizatea eta komunikazioan. Horregaz batera, eguzki energia instalatzea aukera dezake: eguzki panel termiko eta fotovoltaikoekin ere egiten baitute beharra Ekidomekoek.

Bezeroari ez diote ezer izkutatzen. «Jendeak ez daki horrelako sistemak berri, ez daki zertan lagundu ahal dion. Bada, guk abantaila eta desabantailen berri ematen diegu», azaldu du enpresako arduradunetako batek. Erosle batzuek instalazio osoa egitea nahi izaten dute. Adibidez, etxebizitza berri batean lur irradiatzailea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa eta aurreinstalazio domotikoa jartzten dituzte. Mota horretako etxea «etorkizunari begira» dagoela azaldu dute Ekidomen. Izan ere, aurreinstalazio horregaz, nahi dutenean aparatu domotikoak jarri ahaliko dituzte. Aurreinstalazioa egitea enpresako beharginek aholkatu egiten dute: «saldu bai, bai-

na batez ere aholkatu egiten dugu bezeroak».

Eta horrelako beharrak egiteko, Lea-Artibai inguru aproposa dela uste du Ekidomek. «Potenzial handiko lekua da, baserri asko daude...», azaldu dute. Enpresa mugitzen den merkaturako leku ona dela uste dute. «Ez dago Bilbo eta moduan hain esplotatuta, eta hori ona da gure behar esparrurako». Bazkide sustatzaile bi, behargin bat eta praktiketan dabilen beste baten artean ateratzen dute enpresa aurrera. Eta gauza bat argi daukate: «inor ez da ezinbestekoa, baina denak dira beharrezkoak». Izan ere, enpresan arlo bakoitzeko arduradun bat daukaten arren, denek dakite apur bat gainerako arloez.

Orain, hazi egin nahi dute. Modu «jasangarrian», baina hazi. Ekidomekoek uste dute gaur egun bizi daitekeela eguzki energiari. Lehen ez. Egon bazeuden arlo horretan beharra egiten zuten enpresak. Bulego-



Produktu eta zerbitzuen erakusketa egin, eta bezeroarengana hurbiltzen dira.

tik funtzionatzen zuten, ostera. Ekidomen berezitasuna, justu kontrakoa da: bulegotik barik, erakusketa eta aurkezpenekin hurreratzen dizkie produktuak eta zerbitzuak interesatuei.

Negozio aukera ikusi zutelako sartu ziren mundu horretan. Euskal Herritik kanpo ibili ziren, eta ikusi zuten, etxebizitzan teknologi berriak eta garapen jasangarria sartzea zela joera. Hasiera batean nahiko

gauza orokorrak egiten hasi ziren eta ibiliaz, merkatuak esan zien nondik nora zihoazen kontuak.

Gaur egun egoera onean dago enpresa. «Baina ez dauka zer ikusirik etorkizunean datorrenagaz», dio itxaropentsu Ekidomeko bazkideetako batek. Orain, lehenengo erronka Markina-Xemeingo Esperanza Haztegia finkatzea da, eta geroa, haztea.

# kooperatiben bideetik



elkarrizketa ••• ALFREDO ISPIZUA (EUSKO JAURLARITZAKO GIZARTE EKONOMIAKO ZUZENDARIA)

## «Koordinatuta lan egiteak indarra izaten jarraitzen du»

“Enpresek konpromisoa hartzearen beharraren aurrean, Kooperatiben mahaia sortzean, bete-betean igarri du Azaro Fundazioak”



**A**lfredo Ispizuaren zuzendaritzapean eraman da aurrera Gizarte Ekonomiko hiru urtetako dekretua. Dekretu horren bidez, sei kooperatiba sortu dira Lea-Artibai eskualdean.

**Nola laguntzen du Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiko Departamentuak kooperatiben sorrera gure eskualdean eta gure inguruko eskualdeetan?**

1997az geroztik, Gizarte Ekonomiko Zuzendaritzak arlo horretako enpresak — Kooperatibak zein Lan sozietateak — sortzeko eta sendotzeko sustapen politika indartsua du martxan. 2002an aurrerapauso bat eman zen, eta asmo handiko proiektua jarri zen martxan enpresa mota hauen sustapen planifikatua bultzatzeko helburuarekin. Horretarako, enpresa berrien sustapenean lanean diharduten erakundeak indartu behar dira. Horien artean Azaro Fundazioa dago. Era berean, Azaro beste bi lurralde agentek babestuta dago: Hezkuntza Teknikoko Eskola eta enpresa berrien sorreran lan egiten duten beste hainbat erakunde.

**Nolakoak dira dekretuaren emaitzak?**

Lau lurralde nodo eratzea lortu da: zuena, Markina-Xemeingoa, beste bat Bilbo Handian, beste bat Goierri eta laugarren bat Debagoienan. Normala den bezala, eskualde hauen desberdintasun kulturalak eta sozio-ekonomikoen emaitzak baldintzatzen dituzte. Hala ere, orokorrean, gizarte ekonomiko enpresen sorrera zuzenean eta gizarte ekonomiko enpresen balore parte-hartzaileen sentsibilizazio eta hedapenean egindako lanarekin harro gaudela esan beharra dugu. Bereziki enpresa berrien promozio zentroen efektu dinamizatzaile azpimarratu nahiko nuke.

**Nola ikusten duzu Lea-Artibai eskualdeko kooperatiben mahaia egiten ari den lana?**

Guretzat gizarte ekonomikoaren sustapenerako enpresen konpromisoa

behar-beharrezkoa da. Ez bakarrik enpresa ideien eta balizko sustatzaileen iturri (kontrastatua) direlako, baita proiektu berrien laguntzaile eta babesle direlako ere. Horregatik, enpresek konpromisoa hartzearen beharraren aurrean, kooperatiben mahaia sortzean, bete-betean asmatu du Azaro Fundazioak. Kooperatiben mahaia merkaturatu erroturiko enpresen jakintza erkarpena egiten du, eta kofinantziatorako bidea ere bada. Logikoki, mahai hau eta beronen jarduna sendotzea gustatuko litzazuke; eta kide kopurua, laguntza aukerak eta sortu berri diren gizarte ekonomiko enpresei ematen dieten babesa gehitzea.

**Zeintzuk dira etorkizunean jarraitu beharreko bideak?**

Gure estimazioaren eta analisisien arabera, egungo eta etorkizuneko ekitaldiarako laguntza publikoa

arautzen duten tresnak egokitu behar dira eraginkorragoak izateko, emaitzetara bideratutako egoteko; beti ere, aurrez egin beharreko zabalte, bultzatze... lanak ahaztu gabe. Eta era berean, urtebeteko ekitaldiei aurrekontuak egokitu, eta planifikazioa hiru urtera zabaltea komenigarria litzateke. Sakonean gordetzen den ideia ondokoa da: herri agenteen — publiko zein pribatuen — konpromisoa hartzea, haien lurralde eremuan aberastasuna eta lanpostuak sortu ahal izateko. Koordinatuta lan egiteak indarra izaten jarraitzen du; gaur eguneko mundu-mailako bihurtzearen eta internazionalizazioaren efektuak ikusita, gero eta beharrezkoagoa da. Zehaztu beharrezkoa zera da: hori «nola» egin. Guztien lanikidetzarekin, «nola» hori definitzen joango gara ekitaldirik ekitaldi.

## 6 kooperatiba sortu dira 3 urtean

Lea-Artibaiko 11 kooperatibek Kooperatiben Mahaia sortu dute, Azaro Fundazioak koordinatuta

**L**ea-Artibai eta inguruko kooperatiben mahaia martxan dago 2003tik. Ekonomia sozialaren filosofia eta baloreak zabaltea, baliabideak, iritziak eta orientazioa emateko iritzi foro bat izatea, hainbat sektoretako informazio ematea eta kooperatiba berrientzako laguntzak eta horiek banatzeko irizpideak zehaztea ziren mahaiaren helburuetako batzuk, eta hala dira oraindik ere.

2003-2006 urtean sei kooperatiba sortzea ere egin beharretako bat zuten, eta sortu egin zituzten. Errealitatea dira gaur egun Durangoko Kafe Antzokia, Mendilankor, Leabai, MCI, Xemein eta Oizpe kooperatibak.

Barrenetxe, Burdinola, Cikautxo, Eika, Miba, Kide, Lealde, Euskadiko Kutxa, Gaztempresa, Fagor eta Maier kooperatibek osatzen dute mahaia, eta Azaro Fundazioak koordinatzaile beharrak egiten ditu. Mahaia ez zen kasualitatez sortu, Eusko Jaurlaritzak kooperatiben sorrera bultzatzeko atera zuen ordena baten ondorioz baino. Izan ere, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailan egin zuten dekretuak gero mahaia bere gain hartu zituen helburu ba-

tzuk jaso zituen. Gizarte ekonomiko 6 enpresa sortzea zen helburu nagusia, eratu osteko hiru urteetan hamabost lanpostu sortzeko gai izatea edota gutxienez 100.000 euroko inbertsioa egitearen baldintzapean. Bada, 83 lanpostu berri daude sortu diren sei kooperatibetan.

Aurrera atera diren gizarte enpresak, besteak beste, metodologia jakin bati esker atera dira. Azaro Fundazioak lagunduta, bideragarritasun plan bat egin zuten lehendabizi. Horren ostean, enpresa planarekin hasi ziren; lehenengo, garapen teknologikoa landuz beharrezko kasuetan; eta azkenik, enpresa bera sortuz. Behin sortuta, jarraipena egiten diete.

Kooperatiben mahaia laguntza ekonomikoak jarri zizkieten eskura. Enpresa berrien inbertsioa 60.000 euro baino txikiagoa denean, %20 ordaintzen du; ostera, handiagoa bada, %15, beti ere gehieneko laguntza 60.000 eurokoa dela jakinda. Inbertsiorako diru laguntzez gain, beka batzuk ere ematen dizkie: gehienez, hamar hilabetean 360 euro hileroko. Proiektuko hiru beka gehienez. Laguntza ekonomikoak beharrezkoa da askotan enpresak sortze-

ko. Baina horrez gain, bestelako gunea ere eskaintzen die kooperatiben mahaia: ideiak kontrastatzeko, proposamen eta aholkuak jasotzeko eta animoak emateko.

Laguntza asko eskura. Hala ere, eman edo ez jakiteko irizpide argiak jarri zituen bere garaian kooperatiben mahaia. Alde batetik, proiektuaren bideragarritasuna ikustea litzateke. Bestetik, sustatzaileen profila egokia den ala ez erabaki behar da. Horiez gain, kooperatiben mahaiko kideek egindako galderak erantzutea beharrezkoa izango dute laguntzak eskuratu ahal izateko. Eta behin laguntzak ematea onartuz gero, urtean behin kooperatiba berriaren egoerari buruzko txosten bat aurkeztu behar da.

Kooperatiba bat sortzeko ideiaz gabe dabilenarentzat edo iada sortua duenarentzat, hainbat jardunaldi antolatu izan ditu Azaro Fundazioak, kooperatiben mahaiko parte hartzeaz. Besteak beste, kooperatiba bat sortzearen abantailaz aritu ziren, baita kooperatibismoa eta lidergoari buruz ere. Hemendik aurrera ere horretan jarraituko dute, jardunaldiak egiten eta, bide batez, kooperatibismoari laguntzen.




Kooperatiben mahaia, bilduta. Azaro Fundazioak koordinatzen du mahaia.



### Kooperatiba berriak •••

ENPRESA	SORRERA	ENPRESA MOTA	LANGILEAK
<b>Plateruenea</b> Durangoko Kafe Antzokia Koop. Elk.	2005eko martxoa	Kontsumo Kooperatiba	14
<b>Mendilankor</b> Koop. Elk.	2005eko martxoa	Koop. Elk.	5
<b>Leabai</b> Koop. E. (Moltek)	2005eko ekaina	Koop. Elk.	18
<b>Markina Calor Industrial</b> S.L.L.	2005eko ekaina	Sozietate Laborala	7
<b>Oizpe</b> Koop. Elk.	2005eko ekaina	Koop. Elk.	28
<b>Xemein</b> Koop.	2007ko urtarrila	Koop. Elk.	11



## Arrantza: Etorkizunerako bidea urratuz

**A**rrantza sektoreak aldaketa handiak jasan ditu 60. hamarkadatik. Europako lege aldaketek, hazkunde jasangarriaren inguruko erabakiek eta espezieen gutxitzeak eragina eduki dute sektorean. Baina, aldi berean, sozio-ekonomikoki garrantzi handia dauka.

Jakina da Europako batasuna itsas-ekonomian lider mundiala dela. Lehorrean baino handiagoa da itsasoan duen jabetza, eta Batasuneko populazioaren erdia bertatik bizi da. BPGren %3 arrantzarekin loturiko industria eta zerbitzuetatik dator. Turismotik eta jabetzatik datozen zeharkako kontribuzioak kontuan izanda, zifra hori asko igotzen da. EBn 1.200 portu daude: %90ak kanpo komertzioan eta %40ak barne komertzioan aritzen dira.

Lidergo mantentzeko bi ildo markatu dira: sektore tradizionalen lehiakortasuna mantentzea eta sektore berrien aukerei probetxua ateratzea. Gainera, garraioa, energia, lana, arrantza, turismoa eta aisialdia barneratuko dituen planteamendu integratzaileak proposatzen dira.

Hala ere, epe luzera begira, sektorearen lehiakortasuna bermatzeko erakunde publikoen eskuartzea beharrezkotzat jotzen da. Horretaz gain, kontuan hartu behar dira itsas ingurugiroa eta kostako herrien ongizatearen errespetua. Zentzu horretan, besteak beste, gehiegizko arrantzaldiak saihestu behar dira.

EAEko ekonomian, arrantza

sektoreak enplegu eta balio erantsi portzentaia altuegirik suposatzen ez duen arren, sozio-ekonomikoki berebiziko garrantzia du. Izan ere, portu gutxi batzuetan kontzentratzen da, eta hainbat azpisektoreengan du eragina. Arrantzak, aktibitate gisa, duen errotzea eta itsas flotaren dibertsifikazioa ezin dira ahaztu. Baina enpresen tamaina txikiak eta produktu sorta zabaltzeko zailtasunek kezka sortarazten dute.

Arrantza aktibitateak mantentzeko, gutxienez, aukerak zabaltzeko ikerketak egitea eta produktuen gehitzea eskatzen du. Zentzu horretan deigarria da itsas produktuek elikaduran duten garrantzia; ikerketarako lerro bat zabalduz.

Lea-Artibai eskualdeari dagokionean, arrantza sektoreak urteetan garrantzi handia eduki du. Egun, berriz, sektorearen berrindartzeari ematen zaio garrantzia. Izan ere, eskualdearen garapenerako giltzarria izan daitekeela uste da. Bereziki, Ondarroa eta Lekeitioko udalerrietan duen garrantzia azpimarragarria da. Aipagarria da, gainera, arrantza aktibitateari dagokionean, Ondarroa dela Kantauri itsasoko porturik garrantzitsuena.

### Egoeraren analisisa

Arrantza sektorearen azpian bi azpisektore nagusi agertzen dira: arrantza aktibitate gisa eta industria eraldatzailea.

Arrantza aktibitateak EAEn BPGaren %1 besterik adierazten ez duen arren, kontuan hartu be-



Ondarroako portua.

har da sektorearen garrantzi sozio-ekonomikoa. Izan ere, EAEn arrantza aktibitateko enplegu bakoitzak 3,5 enplegu sortarazten ditu eraldatze industrian. Hori banaketan, ikerketan eta aholkularitzan sortzen dituen enpleguak kontutan hartu gabe. Horrela, zenbait lekutan arrantza aktibitatea BPGaren %7 izatera heldzen da, eta arrantza sektoreak orokorrean enpleguaren %20

sortzen du.

1997an ur territorialen muga 200 miliatan jartzeak baldintzatu du arrantza aktibitatea azken hamarkadetan. Horrekin batera, EBko kide bihurtzeak (1986) eta 90. hamarkadan baliabideak gutxitu beharrak eragin zuzena eduki dute sektorearengan.

Baliabideei dagokionean, 1999-2004 bitartean ontzien %30 gutxitu zen. Horrek, ordea,

flotaren gaztetzea ere ekarri zuen. 1985. urtean flotaren batza besteko adina 15,6 izatetik, 2005ean 13,3 izatera pasa zen. Eta hori da, hain zuzen ere, etorkizuneko erronkak planteatzeko orduan kontuan hartzen den ezaugarrietako bat. Horrekin batera, besteak beste, ekipamendu teknologikoa, arrantzaren tradizio sakona eta produktuen kalitatezko tratamendua daude.

Arrantza aktibitateak dituen arazo eta zailtasunak langileek jasaten dituzte. Hori dela eta, sektorea erakargarritasuna galtzen ari da, eta horrekin batera, giza faktoreak ere galera garrantzitsuak izaten ditu. Arazo horri aurre egiteko, gazteei eta etorkinei zuzendutako ekintza lerroak martxan jartzea proposatzen da.

Giza faktoreaz gain, zaindu beharreko beste puntuetako bat azpiegitura da. Egungo azpiegiturak eta instalakuntzek arrainen kalitatea mantentzea, arrantzari balio erantsia emateko gaitasuna eta handikarientzako instalakuntza egokiak edukitzea baldintzatzen dute. Hori dela eta, azpiegituraren aldaketa sakona ematea litzateke etorkizuneko erronketako bat.

Industria eraldatzaileari dagokionean, kontserba enpresak dira azpisektoreko protagonista nagusiak. Aktibitate hori tradizio eta pisu handikoa da. Industria eraldatzaileko langileen hiru laurden bertan ari da.

EAEko industria orokorraren alderatuz gero, industria eraldatzaileak ez luke %1 besterik is-

## Eusko Jaurlaritzaren Plan Estrategikoa

*Eusko Jaurlaritzak 2007-2013 urteetan aurrera eramateko plangintza estrategikoa onartu berri du. Plangintzak ondoko gogoetari erantzuten dio: "Arrantza sektorea Euskadiko bigarren eraldaketa sozio-ekonomikoren parte izan behar da. Horrela, balio erantsia duten arrantzari loturiko enpresak bultzatu behar dira, kalitatezko produktua merkaturatu, ondare naturala era arrazional batean erabili eta guztiz profesionalak diren langileak hezi behar dira sektorea modu jasangarri batean garatzeko".*

*Gogoeta hori helburu bihurtuta, bi azpisektore nagusien (arrantza aktibitatea eta eraldaketa) inguruan helburu eta ekintza zehatzak markatu dituzte. Horretaz gain, arrantza sektorearen baitako baliabideei (ingurumenari zein giza-faktoreari lotuak), azpiegiturari, merkaturatzeari eta promozioari ere arreta bera eskaini zaie, arrantza sektorea modu integratzean garatzea baita plangintza estrategikoaren helburua.*

**Ondoren helburu garrantzitsuenen inguruko helburuak laburbiltzen dira:**

### GIZA BALIABIDEAK:

Sektorearen arrisku ekonomikoa gutxitzeko beharrezko tresnak sortzea eta hezkuntza eskaintza handitzeko beharrezkotasuna lantzen da, batez ere. Horrekin batera, lan arriskuen prebentzioari garrantzi handia ematen zaio.

### ARRANTZA AKTIBITATEA:

- Arrantza flotaren ahalmena gestionatu, neurria hartu eta erregulatu beharra azaltzen da. Arrantzaldi mugatuak, arrantza gune berriak topatzeko azterlanak eta beste herrialdeekin kooperazioa dira, besteak beste, azaltzen diren ekintzak.
- Ingurugiroarengan zein errekurtoarengan eragina gutxitzen duten teknologien erabilera indartzea. Ikerketa lana bultzatzea proposatzen da, batez ere.

- Segurtasuna eta lehiakortasuna bermatzen duen flota modernoa eratzea. Mekanizazioak eta automatizazioak garrantzi handia hartuko du.

- Sektorearen sustengu ekonomikoa gehitu nahi da. Horretarako, ontzi barruko prozesua hobetuta arrantzari balio erantsia gehituko zaio. Gainera, eraldatze eta merkaturatzea bateratzen dituzten azpiegiturak erabiliz aktibitatea bera balioen katean sartzea bilatuko da. Besteak, beste, teknologia berrien erabilera areagotuz, produktuaren kalitatea gehitzea da helburua.

- Arrantza tradizionala mantendu arren, berrikuntza bultzatuko da. Horrekin batera, aktibitatea dibertsifikatu egingo da, turismo etnografikoa edo itsas bitziza ezagutzeko turismoa garatuz, esaterako.

### AZPIEGITURAK:

Arraina biltegitu eta ontzitik porturatzeko azpiegituraren hobekuntzak egitea da helburua; beti ere, arrainen kalitatea ahalik eta maila onenean mantentzeko.

### AKUIKULTURA:

Tendentziak eta testuinguruaz aztertu ondoren, itsas akuikulturari loturiko produktzioa gehitzea da akuikulturako helburu estrategikoa. Horretarako, ondoko azpi helburua markatu da: genetikaren, elikaduraren eta ingurumenaren hobekuntzaren bidez, espezie berrien produktzioaren bidez eta beharrezko ezagutza teknikoaz jabetuta produktzioa gehitzea. Horretaz gain, akuikulturako azpiegiturak itsasoan izan dezaketzen eragina ahalik eta txikiena izatea bilatuz

jarduera jasangarria izatea lortu nahi da.

### ERALDATZEA:

- Lehiakortasuna bermatzeko, besteak beste, Euskal Kontserba Enpresen Korporazioa sortzea, arrantza sektorearen prospekzioak egitea eta lanketa prozesuetan aurrerakuntza teknologikoa integratzea da helburuetako bat.
- Inbentsio berriak garatzeko azpiegiturak eskaintzea. Horretarako, eraldaketa enpresa berriak eta elikadurari lotutako parke teknologikoa sortuko dira.
- Arrainetik eratorritako produktuen berrikuntza eskaini nahi da, produktuak dibertsifikatu eta balio erantsi handiagoa duten produktuak lortzeko lan eginez.
- Produktuek ezarrita dauden kalitate estandar guztiak beteko dituztela ziurtatuko duen sektore industrialak edukitzea.

### MERKATURATZEA:

- Lehiakortasuna areagotzea. Horretarako, besteak beste, eskaintza merkatuaren beharretara egokituko da, eta baliabide teknikoak ezarriko dira produktuen merkaturatze gestioa hobetzeko.
- Baldintza teknikoaren eta higienikoen hobekuntza. Arraina jasotzeko biltegiak eta lokalak egokituko dira produktuaren aurkezpena eta tratamendua hobetzeko. Gainera, merkaturatze sektorearen

trazabilitatea bermatu nahi da. Azkenik, baldintza teknikoak hobetu nahi dira, baliabide teknikoak egokituz, tresna informatikoen inguruko formazioa eskainiz eta merkaturako informazio iturrietara sarrera ahalbidetuz.

### KOSTALDEKO HERRIEN GARAPEN JASANGARRIA:

Alor honetako helburu estrategikoaren muina kostako herriek arrantza aktibitatearekiko duten dependentsia gutxitzea da. Horretarako, ondoko azpi helburuak markatzen dira:

- Dibertsifikazioaren bidez, aberastasun sozio-ekonomikoa, arrantza zein akuikultura produktuen balioa eta enplegua mantentzea. Horretarako, errekurto naturaleri eta arrantza tradizio handiko lekuei loturiko turismo berdea bultzatuko da, besteak beste.
- Arrantza herrien garapenean inplikaturik dauden agenteen (tokian-tokikoak, Europa zein nazioarte mailakoak) arteko elkarlana bultzatzea. Modu horretan, ekintza onak zabaldu eta helburu komunak lortzeko lanen bikoizketa ekidinduz litzateke.
- Kultura eta hezkuntza bultzatzea. Besteak beste, eskoletan eta unibertsitateetako hezkuntza tokian tokiko beharretara egokitu, eta feria eta kongresuen bidez, garapena eta mantenua bultzatu nahi da.

## AKUIKULTURA

Akuikulturak historikoki aktibitate ahula eduki du EAEn. Itsas urarekin erlazioaturiko bi enpresa besterik ez daude; biek erreboiloaren hazketara zuzentzen dute euren jarduna. Bestelako espezieak ere landu izan dituzte (olagarroa, abakandoa, lupina, eta abar), baina beti ere, kantitate txikitetan eta ikerketa helburuei jarraituz. Ur gezari dagokionean, beste bi enpresa daude: batak angelak loditzen egiten du lan, eta besteak, amuarrainekin.

Akuikulturaren garapena hiru faktorek ezaugarritu dute autonomi erkidegoan: itsasertza erabiltzeko orduan kompetentzia handia (mantentzea, turismoa, hondartzak, hiri-gintza, eta abar), itsasertzaren erabilgarritasun baxua eta baldintza ozeano-metereologiko gogorrek akuikultura itsaso zabalean garatzeko eta baldintza horietara egokitu daitezkeen espezieen urritasuna.

Baldintza horiek guztiek akuikulturaren gutxieneko garapena ekarri dute. Hala ere, enpresa sare garrantzitsurik egon ez arren, Mutrikun akuikultura eskola bat dago. Mutrikuko eskola erroiturik eta sendotzen ari den proiektua da; batez ere, erreboiloak eta zenbait molusku haztera zuzentzen du jarduna.

latuko (ez enplegu mailan ez eta balio erantsian ere). Baina elikadura industriara mugatuz gero, haren garrantzia asko handitzen da. 2003ko datuen arabera, langileen %17,23 eraldaketan ari zen lanean, eta balio erantsiaren %13,76 sortzen zen handik.

Egungo arrainaren eraldaketarako tendentziari erreparratuz (produktua fileteetan arkeztea, prozesaturiko arraina...), EAEko tendentziak horiekin bat ez datozela nabarmetzen da. Horrek etorkizuneko eskakizunei eta erronkei erantzun ahal izateko egokitzea eskatzen du.

Hala ere, industri eraldatzaileak ez dio bideari esku hutsik ekingo. Izan ere, EAEn erabiltzen diren lehengaiak kalitate onekoak dira, arrainaren propietate onuragarrien jakintza orokortua dago, oinarritzko osagaia arraina den plater prestatuen izen ona eta ibilbidea zabaldua dago, euskal portuetan deskargaturiko arrainak berezko balioa du —eta kontsumitzaileek hala aitortzen diote— eta ikerketa eta garapenerako gune garrantzitsuak eta laguntza ekonomikoak ditu.



## elkarrizketa ••• JOSU SANTIAGO

(EUSKO JAURLARITZAKO ARRANTZA ETA AKUIKULTURAKO ZUZENDARIA)

## «Sektorearen giltzarria guztion artean plan estrategikoa garatzea izango da»

Lea-Artibaiko sektorearen garapenerako, eskualdeko portu bakoitzaren potentzialitatea kontutan izan behar da



### Horietatik zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Arrantza aktibitatearen ardatzak arrantza ahalmenaren eta baliabideen arteko erlazioan sakontzen du. Bi alde horien arteko doitzea beharrezkoa eta jarraia izan behar da, eta **ustiaketa bideek itsas baliabideen kontserbaziora egokitu behar dute**. Baina ingurumenaren jasangarritasuna zaintzen dugun bezalaxe, **flota moderno, lehiakor eta seguru bat edukitzeko helburuak finkatu behar dira**; arrantzari kalitatea eta balio erantsia gehitzea lortuz eta berri-kuntzaren aldeko apostu garbia eginez. **Akuikulturaren ardatzean, aktibitate hori indartzea lortu nahi da**, eta espezieen elikaduran, genetikan, ingurumenaren eta osasunean hobekuntzak egin. **Industria eraldatzailearen ardatzean**, berriz, lehiakortasuna handitzea, enpresak haztea, produktuen kalitatea eta segurtasuna ziurtatzea eta produktuen balio erantsia gehitzeko ikerketa eta garapena bultzatzea dira helburu nagusiak. Azkenik, **merkaturatzeari eta promozioari buruzko ardatzean**, instalakuntza eta produktuak hobetzea da helburua; horretarako produktuen trazabilitatea bultzatuz eta produktuen merkaturatzerako sistema informatiko aurreratuen aldeko apostua eginez. Horretaz gain, merkatu poten-

tzialetan sartu ahal izateko, ikerketa bultzatu eta arrainarekin loturiko produktuen kontsumoa promozionatuko da. Beti ere, kontsumitzaileen hezkuntza eta sentsibilizazioa kontuan hartu eta arraina jateak dituen alde onak nabarmenduz.


### Zein da Lea-Artibaiko portuen potentzialtasuna?

Euskadi mailan ezarritako marku orokorraren barruan, portu bakoitzaren egoera eta potentzialitatea kontutan hartuta estrategia bereziak markatu behar dira. Lekeitiok, esaterako, Ondarroak ez bezala, aktibitateen dibertsifikaziorako ahalmena du arrantza-turismoa kontzeptuaren bidez. Era berean, Ondarroak, berriz, beste alor batzuetan lehiatzeko abantailak ditu, arrain kopuru handiak arrantzatetik eratortzen den eskala ekonomiarik esker. Horretaz gain, beharrezkoa da aspektu soziala kontuan hartzea. Zentzu horretan, Ondarroa sektorean etorkinak integratzearen erronkari ondo erantzuten ari zaio nire iritziz.

### Zeintzuk izan daitezke sektorearen arrakastarako giltzarriak?

Egoera bakoitzaren arabera, giltzarriak desberdinak dira. Ondarroako etorkizun sozio-ekonomikoak, esaterako, bi euskarri izan behar ditu: alde batetik, portuko azpiegituren hobekuntza, eta beste alde batetik, alturako ontziek eska-

eraren presio handiagoa behar dute. Horrek merkaturatzeko zein eraldaketarako azpiegituren hobekuntza ekarriko luke, eta horrek, arrantza aktibitatea bera sustengatuko luke. Lekeitiok, berriz, baxurako eta artisau-lanean oinarritutako ontziak ditu. Portuaren kokapena oso periferikoa izanik, inguruan dituen bi merkatal zentru indartsuen (Ondarroa eta Bermeo) aldean egoera desegokiagoan dago. Dependentsia sozio-ekonomikoari dagokionean, Lekeitio dibertsifikazio prozesuan hasita dagoela esan daiteke. Turismorantz bideratu du bere jarduna, eta aspektu hori dinamizatu eta indartu beharra dago. Arrantza-turismoa bezalako dibertsifikazio ekimenak bateragarriak izan daitezke herriaren garapenerarekin zein arrantza sektorearen mantentzearekin. Edozein kasutan — herri bakoitzaren egoeraren analitistik haratago —, benetakoa giltzarria arrantza sektoreko alor desberdinetan ari garen guztion lana da. Giltzarriak, izatez, guztiok ikuskera bateratua lortzeko, estrategia jakin bat erabakitzeko eta hura abian jartzeko elkarlanean aritzeko ahalmenaren datza. Arrantza plan estrategikoa gogoe-ta abian jartzeko elementu bat da, baina sektorearen giltzarria guztion artean plan estrategikoa garatzea izango da. Lan asko daukagu egiteko.



# eskualdeko enpresak ezagutzen

ONDARROA • BASOARTE, SA

## Konfiantza beteko zigilua

Produktuen freskotasuna bermatu eta bezeroei arreta berezia eskaintzen diote



Eguneko arraina saltzen du Basoartek momentura arte dituen zazpi arraindegietan.

**S**ortu zenetik (1993. urtea) gaur egunera, zenbait aldaketa jasan izan ditu Basoartek. Hala ere, beti bezala, arrain freskoaren merkatuan egoten jarraitzen du. Ikusmira berriarekin, ordea; etorkizunari aurrez begiratzen dionaren ziurtasunarekin.

Hasiera batean, enpresak bere itsasontziak zituen, eta bere flotak harrapatutakoa saltzera dedikatzen ziren bere arraindegietan. 2005ean enpresa eskuz aldatu zen. Ordutik itsasontzirik ez dago, baina arraindegi kateak hor jarraitzen du betiko zigilupean: kalitaterik oneneko eguneko arrain freskoa. Horretaz gain, handizkako salmentetan ere aritzen da.

Arrain freskoa eskaintzen dute, eta hori horrela izateaz arduratzen dira. Goizean portuan erosten duten arraina kaxetan sartu eta egunean bertan ateratzen da dagokion merkatura edo arraindegira. Handikarientzako zein euren arraindegietarako zerbitzu integrala eskaintzen dute.

Arrainaren freskotasunaz gain, bezeroekiko arretari ere garrantzi handia ematen diote Basoarten. Arraindegietan, esaterako, kalitateaz gain, erosotasuna ere eskaintzen diote bezeroei, ahalik eta zerbitzu osoena eskainiz.

Urteetan modu horretan jar-

dun izanaren ondorioz, Basoarte izenak pisua du: kalitatearen eta zerbitzu onaren adierazle bihurtu da.

### Gune propioa sortuz

2005ean, esku aldaketarekin batera, barne antolamenduaren aldaketa ere etorri zen. Sozietate anonimoa izan arren, langileek autonomia handia dute, eta enpresa erabaki garrantzitsuak guztien artean hartzen dituzte.

Langileak enpresako parte sentitzen dira, eta lanerako gogo handia dute. Proiektu ugari dituzte esku artean. Horietaiko bat dagoeneko gauzatzen ari da. Egun, zazpi arraindegi dituzte: bina Gernikan eta Arrasaten; eta bana Eibar, Markina-Xemein eta Ondarroan. Arraindegiak ireki ahala langileak gehitzen joan dira enpresara, eta 2003tik 2007ra zortzi-hamar lagun gehiago daude Basoarten.

Baina handitzea, zabaltzea dute helburu. Zirkuitu itxi bat osatuz, gune propioa sortu nahi dute. Horretarako lehen pausoa Gernikan eman dute. Lehendik zuten arraindegietako bat itxi eta eskuratu duten lonja berrian beste bat irekitzekotan dira. Arraindegi berriak orain arteko zerbitzuak hobetuko ditu, eta Basoarteren eskaintza bere osotasunean eskura edukitzeko aukera emango du.

ONDARROA • PESCADOS LLORENTE, SL

## Tradizioa eta kalitatea bat eginda

Arraina erosten duten momentutik hasi eta bezeroari helarazi arteko prozesua kontrolpean dute

**I**bilbide luzeko enpresa da Pescados Llorente. Enpresaren izena bera ez da kasualitatea; Segundo Llorente izan zen enpresari gaur egun duen izaera eman ziona. Hasiera batean kontserbetara dedikatzen zen arren, orain 60 urte, arrain freskoaren mundura pasatzea erabaki zuen.

Urteek aurrera egin ahala, familiako zenbait kidek bat egin dute enpresaren jardunarekin, eta egun bigarren belaunaldiak parte hartzen du enpresaren ibilbidea zuzentzen.

Enpresako egoitza soziala Ondarroan dago; han bi lonja dituzte (bakoitza 140 metro koadrokoa). Bertan arraina klasifikatu eta erosleentzako eskakizunen arabera, bost, sei, edo zazpi kiloko kaxetan sartzten dituzte.

Pescados Llorentek hobekuntzarako jarrera izan du sorreratik. Hori dela eta, orain seizortzi urte kortexoko kaxak erabili zituen lehenengotariko enpresa izan zen. Egun esportatzen duten arrainaren %80 kortexoko kaxetan bidaltzen da.

Behin arraina kaxetan sartuta, kamioiez bezeroari bidaltzen zaio zuzenean. Horretarako, sal-erosketara zuzentzen den enpresarekin batera, kamioi en-

presa bat ere sortu zuten. Modu horretan, ez dute kanpoko zerbitzuen beharrik; arraina erosten duten momentutik bezeroari helarazten dioten arteko prozesua kontrolpean dute.

### Merkatuari erantzunez

Arrain freskoaren merkatuak gorabehera handiak izaten dituen arren, Pescados Llorentek beti asmatu du egoera berriei erantzuten. Merkatu bizi horren barruan finkatzen jakin du Pescados Llorentek, eta poliki-poliki, urteetako lanaren bidez, enpresa handituz joan da.

Hiruzpalau langilerekin martxan jarri zen enpresa hartan, gaur egun 21 langile daude. Mugitzen duten arrain bolumena ere izugarri hasi da. Hortik, espazio berriak eskuratu beharriana.

Enpresaren hazkuntza prozesuak arrazoi sendoa du. Zerbitzu ezinhobea eskainiz, bezeroen fideltasuna lortu dute. Bezeroak portuan dituen begiak direla: horixe da filosofia; eta filosofia horri jarraituz, bezeroak berak aukeratuko lukeen arrainarekin lan egiten dute. Eta hori da, hain zuzen ere, euren arrakastaren giltza.



### PROIEKTU BERRIAK

Mijoako pabiloiak erronka berriei aurre egiteko beharrezkoa zuten espazioa eman dio enpresari. Pabiloi berriak hiru solairu ditu, bakoitza 950 metro koadrokoa. Bertan, arraina klasifikatu eta kaxetan sartzeaz gain, eskuartearen proiektu berritzaile baten garapenean ari dira.

Arrain freskoa erosteko formatu berria eskaini nahi dute: arraina medaloietan edo osorik erretiluetan aurkeztuz. Proiektu berriaren helburua, erosleei kalitatea eskaintzeaz gain, ahalik eta erosotasun handiena eskaintzea da. Horretara zuzenduko den makinaria berezia erosi dute, eta momentuan, arraina erretiluetan ahalik eta baldintza egokienetan jartzeko azterketak egiten ari dira. Aurrera begira, proiektuan pauso berri bat eman nahi dute: erretiluetan arrain xerrak eskaini nahi dituzte.



Pescados Llorente enpresako langileak Mijoako industrialdeko pabiloi berriaren arrainaren banaketa egiten. G. GARAGARZA

GIZABURUAGA • KAUTXO TIUNA, SL

# Berrikuntza, etorkizunaren giltza

Kautxo Tiuna enpresa merkatu gune berrietara zabaltzeko bidea egiten ari da



Gehienbat automobilgintzarako kautxuz injektaturiko piezak egiten dituzte.

**B**eharrian bati erantzunez sortu zen 1996an Kautxo Tiuna. Cikautxok azpikontrata baten beharra zuen kautxuz injektaturiko piezak egiteko, eta Gizaburuagan sorturiko enpresak bete zuen postu hori.

2001era arte eskusiboki Cikautxorekin lanean aritu zen, baina merkaturan irauteko, dibertsifikatu eta bezero zerrenda luzatzeko beharra ikusi zuten. Poliki-poliki bezero berriak eginez, enpresa handitze bidean sartu zen. Horrela, hiru makina eta hamabi langilerekin hasi zen enpresak, egun, bederatzi makina eta 38 langile ditu.

Extresna elektrikoetarako lanen bat edo beste egiten duten arren, nagusiki automobilgintzara zuzenduta dago euren jarduna. Arlo horretako enpresa handiak, kosteen gutxitzeak arduratuta, kanpoko herrialdeekin lanean hasita daude.

Arrisku horri aurre egiteko, piezen kalitatea eta zerbitzu maila ahalik eta handiena eskaintzera jo zuten. Horrela, esaterako, piezen kalitate azterketak makinatan bertan egiten dituzte. Modu horretara, prozesuaren zati bakoitzean piezak kontrolpean dituzte, eta aka-

tsen bat balego, momentuan zuzentzen dute. Eskaintzen duten konfiantzazko zerbitzua dela eta, bezeroek ez daukate piezak berrikusteko beharrik.

## Aldaketa prozesuan

Etorkizunari begira, bizirauteko jarrera garbia eta zehatza hartu du Kautxo Tiunak. Hori dela eta, azterketa sakona egiten ari dira erantzuna zein izan daitekeen azaleratzeko.

Enpresa txikia izan arren, Bizkaiko Diputazioaren eta Azaro Fundazioaren laguntzarekin, ikerketa eta garapenaren aldeko apustua egin dute. Bizkaiko Diputazioko Berrikuntza Sailaren bidez, merkatuaren nondik norakoak hurbiletik jarraitzen dituzte, eta merkatu aukera garbiak izan daitezkeenak identifikatzen ari dira, energia berriztagarriak, esaterako.

Enpresa dibertsifikatu edo guztiz eraberritu behar duten erabakitze prozesuan sartuta daude. Erantzunaren bila gogoz ari dira lanean. Behin erabakia hartuta, teknologikoki berriztatzea izango da hurrengo urratsa. Eta jadanik, produkzio kosteen gaineko kontrola izateko produkziozko programa berriak sortzen hasita daude.

## lea-artibai ikastetxea >>>



elkarrizketa •••

MAITE BENGEOA

(LEA-ARTIBAI IKASTETXEKO  
KOMUNIKAZIO ARLOKO ARDURADUNA)



## «Eskolako eta inguruko enpresen beharriaz erantzuteko aplikazioak garatzen ari gara»

Ikasleak lan munduaren errealitateko prestatzen dituzte

**M**aite Bengoa (Gasteiz, 1972) hamar urte darabatzat Lea Artibai ikastetxeko Komunikazio arloko arduraduna da. 2006ko irailetik komunikazio arloaren ardura bere gain hartu du.

### Zer eskaintzen du Komunikazio arloak?

Hezkuntza arautuan bost prestatuntza ziklo eskaintzen ditugu: hiru, goi mailakoak—Informatika Aplikazioen Garapena (DA3), Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak (SR3) eta Telekomunikazio eta Informatika sistemak (ST3)—; eta bi, erdi mailakoak—Makinaria eta linea-eroabideen instalazio eta mantentze elektromekanikoa (ME2) eta Hotz, girotze eta bero instalazioak jarri eta mantentzea (FC2)—. Ez arautuan, berriz, langabetuentzako zein langileentzako ikastaroak ditugu.

### Berritasunen artean zein nabarmenduko zenuke?

SR3 eta ME2 zikloan erabiltzen dugun zelula malguta eraldatu dugun, gaur egun enpresetan erabiltzen den automatizazio sistema egokituz (Ethernet eta DeviceNet). Teknologia honetan eta berearekin lotuta dauden gaietan sakontzeko arloko kide bat *Produktzioaren gestio inte-*

*grala* deituriko proiektuan parte hartzen ari da Tknikan ([www.tknika.net](http://www.tknika.net)). Bestalde, segurtasunak enpresetan duen garrantziaren jabe gara, eta ikasleak zentzu horretan ere prestatzen ditugu gaur egungo ekipamenduak erabiltzeko.

### Segurtasunari emandako garrantziak eman du fruiturik?

Iaz Osalanen 2006ko Laneko Arriskuen Prebentzioarako Sariaren deialdian bost finalisten artean gelditu ginen.

### Zikloei buruz, ezer azpimarratzeko?

Bizkaiko Iturgintza, Saneamendu, Gas, Berokuntza eta Antzeko arloen Enpresaburuen ([www.afonvi.com](http://www.afonvi.com)) elkartearekin sinaturiko hitzarmena medio, hotz, girotze eta beroarekin erlazionaturiko teknologietan elkarlanean ari gara. Eguzki energia termikoari buruzko ikastaroa, eta ura eta gasari buruzko jardunaldi tekniko bi emango dituzte. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak zortzi karnet emateko homologatu gaitu. Hurrengo ikasturtetik aurrera, FC2 egiten duten ikasleek hauetako zazpi eskuratuko dituzte. Afonvi-ren hitzarmenak eta karnetek FC2ko ikasleen laneratzea indartuko dute. Gainontzeko prestatuntza zikloei dagokien-

ean, zenbait enprekin ditugun hitzarmenei esker, DA3 eta ST3 zikloak bukatu dituzten ikasleentako batzuek SAP ERP software ezagunaren erabilera eta mantentimendua ikasten dute. Horrek prestatuntza ziklo horietako ikasleen laneratze kualitatiboa indartzen du.

### Horrez gain, beste zerbitzuren bat eskaintzen al duzue?


Eusko Jaurlaritzak langileentzat edo lanean aritu direnentzat lanaren eta norbere kabuz lorturiko kualifikazioak ebaluatzeko egitura sortu du ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2333/es](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2333/es)). Egitura horren barruan, aholkulariak eta ebaluatzaileak daude. Gure arloan, formazio osoa jaso duten hiru aholkulari ditugu. Bestalde, Azaro Fundazioaren bitartez, proiektuen tutoretza teknikoa ere egiten dugu. Besteak beste, Zuntz optikoari buruzko enpresa proiektu berritzaile baten eta software libreaki buruzko beste baten bagabiltza.

### Eta software libreaki loturiko beste proiekturik?

Software librea bultzatu asmoz, eskolako eta inguruko enpresentako beharriaz erantzuteko aplikazioak garatzen ari gara. Lan horretan DA3 eta ST3 zikloak bukatu duten zenbait ikasleek ere parte hartzen dute.



ARGITARATZAILEA: **Azaro Fundazioa**  
 LEGE GORDAILUA: **BI-804-05**  
 EGOITZA: **Xemein Etorbidea, 19,**  
**48270 MARKINA-XEMEIN**  
 TELEFONOA: **94 616 91 72**  
 Faxe: **94 616 92 17**  
 E-POSTA: **azaro@leartik.com**  
 WEBGUNA: **www.azarofundazioa.com**



# hazi

• 2007ko APIRILA • 6. ZK. • 3.urtea

BABESLEAK:

LAGUNTZAILEAK:

## AZARO FUNDAZIOA •

# Erreferenteak ezagutzen

Kanpoko esperientziak ezagutzuz eskualdearen aukerak aberastu nahi dituzte

**B**eti esan izan da kanpoko esperientziak ezagutzera ona eta aberasgarria dela. Eta gaur egun, inoiz baino gehiago, ezagutzaren garaian bizi garelarik, nahitaezkoa da zeregin honetan jardutea.

«Kanpora» irtetearen helburua zera litzateke: hangoa ikusi, ezagutu, praktika onak identifikatu eta hemen izan dezakeen aplikagarritasuna aztertu edota hobetu.

Helburu honekin, azken boladan Azaro Fundazioak hainbat irteera egin ditu.

Bidai horiek egiteak, hainbat alorretan ezagutza biltzeko aukera eman dute. Alde batetik, sustapenaren alorrean sakondu ahal izan da Bartzelona, Italia, Finlandia, Frantzia, Suiza, Austria, Alemania eta Belgikako zenbait esperientzia ezagutzuz. Bidai horietan, hainbat haztegi, unibertitate, zentro teknologiko eta erakunde publiko bisitu dira, sustapenaren inguruko metodologia eta tresna erabilgarri asko ezagutzeko aukera egon delarik.

Bestalde, Garapen Agentziaren batera, Mikroenpresen alorrari

begira Barakaldoko BEC aretoan *Mikroenpresak eta herri garapena* izendaturiko kongresu batean parte hartu dugu. Bertan, mikroenpresek jokatzen duten paper garrantzitsua eta berrikuntza prozesuetan eman beharreko pausoak izan dira aztergai.

Azkenik, arrantza sektorearen alorra gehiago ezagutzeko asmoz, Galiziako bi portu bisitatu dira; hala nola, Burela eta Celeiroko portuak. Arrantza sektorearen etorkizuna bermatuko duten planteamendu eta erronkak ezagutzera izan da helburua, besteak beste.



Finlandiako Team Academy-ra egindako bisita, 2007ko urtarrilean.

Azaro Fundazioak enpresa sortzeko prozesuan laguntza eta sortu ondoren, lehiakortasuna hobetzeko zerbitzuak eskaintzen dizkie eskualdeko ekintzaile eta enpresei.

## berriak •••

**SUSTATZAILEEN OINARRIZKO TREBAKUNTZA IKASTAROA (SOTI):** Apirilaren bukaeran. Antolatzailea: Azaro Fundazioa.

**LEA ARTIBAIKO GARAPEN AGENTZIAREN eskutik,** Merkataritza eta Ostalariei zuzendutako "Merkataritza aldizkaria"ren bosgarren alea kaleratu da.

**BISITAK:** Urtarrila Martxo bitartean, Esperanza 2013, eskualdeko proiektu estrategikoaren komunikazio ekintzekin jarraitu da. Hilabete hauetan proiektua zuzenean ezagutu dute: Iñaki Telletxeak (EJko Industria eta Teknologia Sailburuordea), Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza batzordekideak, Imanol Aburtok, (EJko Industria Saileko Sustapen Zuzendaria), Rikardo Barainak (Berrikuntza eta Ekonomia Sustapenerako Foru Diputatuak), Gaizka Zulaikak (BFAKO Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saileko Zuzendari Nagusia), Beaz, Bai Agentzia, Bizkaia Xede eta Seed Capitaleko kideak, Javier Valsek (MCCko Promozio Zentruko Zuzendaria), Manuel Arrietak (SPRIko Sustapen Zuzendaria), Martin Ascacibarrek (EJko Arrantza eta Nekazaritza Saileko Berrikuntza eta Teknologia Zuzendaria), eta Juan Karlos Zuloagak (Landa eta Itsasertzen Garapenerako Zuzendaria).

Guzti hauek Esperanza 2013 proiektua positiboki baloratu dute, eskualdearentzat ekarpen garrantzitsu bezala eta euren partetik, ahal duten neurrian, babesa eta laguntza emateko prest agertu dira.

## jardunaldiak / ekitaldiak •••

• **Martxoak 5:** Azaro Fundazioko Sustatzaile Eskolako zuzendutako Jardunaldia. Gaia: **NEGOZIO AUKERA BERRIAK ETA SUSTATZAILE ESKOLAKOEN ENPRESA PROIEKTUEN ANALISIA.**

Hizlaria: Juanjo Gabiña  
Antolatzailea: Azaro Fundazioa

• **Martxoak 14:** Eskualdeko **MERKATARI ETA OSTALARI GUZTIEI ZUZENDUTAKO JARDUNALDIA.**

Gaia: Merkatal txartela. Antolatzailea: Lea Artibaiko Garapen Agentzia

• **Martxoak 16:** Leabai Koop. Elkartearen egoitza berriaren inaugurazioa

• **Martxoak 23:** **SUSTATZAILEEN EGUNA LEA ARTIBAIN.** Gaia: Enpresa sortu berri duten sustatzaileei omenaldia

• **Udaberriaren:** **ESKUALDEKO ENPRESEI ZUZENDUTAKO JARDUNALDIA, KOOPERATIBAGINTZAREN INGURUAN**  
Antolatzailea: Azaro Fundazioa.

**OHARRA:** Egingo da deialdi zehatzagoa

## dirulaguntzak •••

### ONDORENGOTZA PROGRAMA:

**Xedea:** EAEko Enpresa txiki eta ertainetan hausnarketa prozesua bultzatzea, enpresaren kudeaketa edo jabetzaren ondorengotza planifikatzea eta modu ordenatuan egitea, enpresaren jarraipena bermatzeko.

**Erakundea:** SPRI, Industriaren Eraldaketarako eta Sustapenerako Baltza, S.A.

**Epea:** 2007ko abenduaren 31a

### BIZKAIBERRI LAGUNTZAK.

**Xedea:** Bizkaiko enpresa txiki eta ertainen berrikuntza sustatzea

**Erakundea:** Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saileko

**Epea:** 2007ko apirilak 16

### PROGRAMA GAITEK

**Xedea:** Produktu berrien garapenerako proiektuen gauzapenerako laguntza programa.

**Erakundea:** Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko

**Epea:** 2007ko maiatzak 31

### ELKARTEGIAK PROGRAMA

**Xedea:** Kalitate eta ingurugiro sistemak ezartzearen, bonifikazio bereziak.

**Erakundea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Epea:** 2007ko abenduak 31

### PROGRAMA INNOTEK

**Xedea:** Garapen teknologiko eta berrikuntzako proiektuen garapenerako laguntza.

**Erakundea:** Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko

**Epea:** 2007ko maiatzak 31

### PROGRAMA NETS

**Xedea:** Oinarri zientifiko eta teknologikoa duten proiektuen gauzapenerako laguntza programa

**Erakundea:** Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko

**Epea:** 2007ko urriak 1

### URTE OSOAN ZABALIK

• **KZ LANKIDETZA:**  
[www.spri.es/kzlanqidetza](http://www.spri.es/kzlanqidetza)

• **KZ MIKROENPRESEK:**  
[www.spri.es/kzmempresas](http://www.spri.es/kzmempresas)

• **INTERNETERAKO SARBIDEA ETA MUGIKORTASUNA WIFI-REKIN:**

[www.spri.es/wifi](http://www.spri.es/wifi)

**Zure enpresari buruzko berriren bat argitaratu nahi baduzu hemen... Deitu: 94 616 91 72**



**hazi**  
Hurrengoa,  
2007ko  
ekainean!!!